

# TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria

1998ko apirila - 23. zenbakia

**Argazki-erreportaia:  
San Joseko probak**

**Bakioko taldeen  
barriak**

**ALKARRIZKETEIA:  
Iñaki Gaminde,  
Bakioko euskerea**



## BERBAURREA

*Udabarria etorri jaku eta beragaz batera, urtero lez, lorak eta landarak loratu egingo dira. Udabarria be, ames eta itxaropen barrien ekarletzat hartu izan dogu beti. Txorien txio-txioak eta piztien narru eta odola barrituaz batera, gure lurak hainbeste behar izaten dauazan aro euritsuak ekarriko ete deuskuz? Lorak loratu, odola barritu. TXIRRITXOLA era barrian loratu daiten gura geunke. Horretarako, lurak euria lez, odol barria behar izango dogu. Halandaze, aldizkaritxua era barri horretan ataraten lagunduteko leiho honetatik dei zabala egiten deusuegu. Ardura horretan inork geugaz bat egin gura izan ezkeruan, pozarren hartuko dogu. Aor bada, gure ames eta itxaropena. Udabarriak ekarriko ahal deuskuz!*

TXIRRITXOLA

## TXIRRITXOLA-23

1998ko apirila (hiruhilabetekaria)

## ARGITARATZAILEA

Bakioko Euskera Batzordea

## ZUZENBIDEA

Bakioko Kultura Etxea

Urkizaur Alde, 28

48130 BAKIO

Tfno.-zkia: 94 619 40 01 / 619 33 69

Fax-zkia.: 94 619 31 18

## ALE KOPURUA:

600

## LAGUNTZAILEA

Bakioko Udala

## IRARKOLEA

Gráficas Gaubeca

Tfno.-zkia.: 94 625 02 74

Fax-zkia.: 94 625 52 54

48300 GERNIKA-LUMO

## TXIRRITXOLA

Bakioko Euskera Batzordeak egindako aldizkaria


## ZER-NON

GAIA

ORRIALDEA

Aurrealdea: San Joseko probak 98 .....	1
Agurra .....	2
Argazki erreportaia: San Joseko probak .....	3
Zer deritxozu?: San Joseko jaia .....	4
Berbetan: Iñaki Gamindegaz .....	5
Zer barri?:	
-Zugatz eguna Bakion .....	8
-Bakion abade barria .....	8
-Euskera plangintzea Bakion .....	9
-Kultur Etxeako albisteak .....	9
Euskerea: Bakioko euskerea-1 .....	10
Zuhur ibili .....	11
Bertsotan: bertso afaria 98 .....	12
Zaharrak barri .....	13
Berbetan: Ibilaldia 98 .....	14
Taldeen txokoa:	
-Itxas-Alde .....	16
-Bakioko Abesbatza .....	17
-Bakioko Futbol Taldea .....	17
-AEK: gurasoen taldea .....	18
-Pilota Taldea .....	20
Eritxia .....	21
Kultura leihoa:	
-Liburutegiaren txokoa .....	22
-Olerkia .....	22
-97ko idaz-lehiaketaren ipuin saritua .....	23
-Aratosteak .....	24
-Herri ipuina .....	24
Danetarikoak:	
-Datozanak .....	26
-Barregaiak .....	26
-Ezetz jakin! .....	27
Atzera begira .....	28

*TXIRRITXOLA aldizkariak ez dauz artikuluetan idatzitakoen esana zein eritxia beraren gan hartuten, artikulugileak baino.*




**BAKIOKO UDALAK**  
diruz lagundutako aldizkaria

# SAN JOSEKO PROBAK

## San Jose eguna ala Idien eguna?



Non ete dagoz idiak?



Nortzuk sakatuten deurie gehiago?



Honek badaki zelan agindu idieri «jeurt!»

**DATORREN URTEAN IKUSI ARTE!!**

*Hau zeure iragarkirako lekua izango da*

# SAN JOSE EGUNEKO JAIA

- 1.- Zer deritxezu San Jose jaiaren inguruko idi probei?
- 2.- Bakion jai hau aspaldian galdu zan. Birreskuratu beharko geunke?



**PATXI BARANDIARAN**

- 1.- Ondo, zeren herri honetan ohitura zaharra da.
- 2.- Bai. Nire ustez, berreskuratzen ari da. San Jose eguna, nire ustez, betiko jaia da. Nortasuna oinarritzkoa danez gero, oso ondo dago.



**INES BARIAZARRA**

- 1.- Idi probak ez zaizkit gustatzen. Orain ez dira lehengoak bezalakoak. Orain konpetitiboagoak dira.
- 2.- Bai, baina «La Monda»koek-eta ez zuten egon behar, herriko jende nagusiak baino. Hau da, gure txakolinaren aita-amak.



**LEIRE ORMAZA  
eta MARIBEGO ITURAIN**

- 1.- Ez da gure gustuko herri kirola.
- 2.- Bai, zeren herriko jaia bada, zergaitik ez? Baina gazteak erakarri behar dira, bestela...

# Iñaki Gamindegaz berbetan BAKIOKO EUSKEREA

## Herriarengandik, herriari.

«Lehengo lepotik burua». Nonork izana eta izena gordeten dauazalako esaten da aurreko euskal esakera zaharra. Izenari, baina, berbakuneak emoten deutso izana. Halan bada, Bakioki bertoko euskereak emoten deutso izana. Izana gordeten dauana bere buruagaz bat etortzen da. Horrek berorrek izena merezi izaten dau. Iñaki Gaminde bilbotarra Bakioko izana batuten eta ikertuten jabilku etxerik etxe, baserririk baserri, Bakiok izena galdu ez daian. Bakioko berbakune ederra eta aberatsa ez dakigun galdu.



Iñaki Gaminde, Ursua Gaminde eta Ester Elgoibar

**TX.-** Ibili, bazabilz ibili, Iñaki, asteotan baserririk baserri, etxerik etxe Bakioko euskerea handik eta hortik batu guran. Zer dala-eta?

IG.- Zuok esanda. Bakioko udaletxetik deitu eusten, euskera teknikaria dan Josebak, ea Bakioko euskerearen ganean zeozer batuteko prest egongo nintzakean. Pozik onartu neban eta amen nago, zuon artean, behar hori egiten.

**TX.-** Zelan sortu da asmo hori?

IG.- Egia esan, nik ez dakit zelan sortu dan. Nik pentsetan dot, herritar batzuk beharrian hori ikusita sortu dala. Udalaren inguruan edo. Ea hori egingo neban esan eustenean, ba, egitekotan kontaktuak euki ezkerro, sano pozik egingo nebala esan neban eta harrezkerro horri ekin izan deutso. Orain, asmoa zelan sortu dan, zergaitik edo zeren inguruan, ez dakit, egia esan.

**TX.-** Behin batu beharrekoa batu ostean, zer egiteko amesa dozu guzti horregaz? Noiz artean ibiliko zara gure artean?

IG.- Hemetik eta udara arte, Bakioko euskereari buruzko liburua edo dana dalako hori idazteko asmoa daukat. Beti

pentsatu behar da, baina, herriaren jakituria osoa ezin leitekela batu. Bizitza osoa beharko litzake horretarako. Erbestekoa izanda, are gatxagoa da. Urte honetan azalekoa batuko dogu, baina ondino asko lotuko da batuteko, mamina lotu be. Aurrera oinkada bat egingo dogu. Abiapuntua errotuko dogu, oinarri batzuk iminiko doguz. Hortik aurrera gauzea sendotu eta ikertuten jarraitu ahal izateko.

**TX.-** Eta batu beharrekoa batu ostean, aiatu dozu liburu bat egingo dozula. Ezer gehiagorik egitea pentsatuta badaukazu?

IG.- Liburu bat egiteko material asko daukat batuta: hemeko jakituria, b e r b a k - e t a , herritarrentzako izango dan liburu baten batuko doguz. Zeozelan, herriarengandik hartu dogun jakitatea herriari atzera bihurtuteko. Beste behar bi gehiago izango litzakez. Alde batetik, Bakioko euskerearen ganerako liburu edo lan linguistikoago bat egiteko asmoa daukat. Hori espezialista edo arlo horretan ibiltzen diranentzako. Eta beste aldetik, testoak, berbak-eta entzun ahal izateko CD-ROM euskarrian imini

### OHARRA

Lekuagaitik hau laburpena da. Inork gura badau alkarrizketa osoa euki, Kultur Etxeatik etortea baino ez dauka.

gura dodaz. Ze askotan berbea papereratu egiten danean, ez dogu jakiten zelan esan behar dan. Ta hori betiko lotu daiten CD-ROM teknologia erabilten da. Ez dakit hori, gero, komertzializatuko dogun ala ez. Nik behintzat herrian itziko dot, material hori eskolan-eta erabili ahal izateko.


**TX.-** Ondo esan deusue bakiotarrek? Zelan ikusi dozuz bakiotarrak?

IG.- Ederto. Orain arte, behinik behin, ederto. Autortu behar dot, Bakioko herriari holako herra antzekoren bat beti euki deusodana. Herri erdalduna dala pentsatu izan dot beti. Baina, nik Bakio ez dot ezagutu izan oraintsura arte. Udaiarren aldia ezagutu dot. Haretzearen inguruko giro hori. Antxina, bai, egin nebazan itaunke-

tearen batzuk, baina beti euki dodaz arazoak barriemoile euskaldunak-eta topetako. Orain konturatu naz, baina, badagoana itxurazko Bakio, azaleko Bakio, tabernen eta haretzearen inguruan batuten dana. Konturatu naz, beste alde batetik be, azpitik herria badagoana. Azpian dagoan herri euskaldunak, herri guztiz euskalduna

**«BAKIOKO  
EUSKEREA  
LIBURU BATEN  
BATUKO DOGU»**

danak, agirian ez dagoanak, sano euskera ederra erabilten dau. Eta niretzako hori ustebakoa izan da. Bakion, ba, egon garan leku guztietan ateak edegi deuskuez ta kontatu be, euren gauzak-eta kontatu deuskuez. Irakatsi be, gauza asko irakatsi



Iñaki Gaminde

deuskuez. Ta pentsetan dot hemetik aurrera be holantxe izango dala.

**TX.- Jakin izan dogunetik, Euskal Herriko, batez be Bizkaiko, beste herrietan be antzerako batuketak egiten ibilitakoa zara. Esango deuskuzu honen ganean, apur gorabehera, zer izan dan zuk bizi, entzun eta ikusi dozuna?**

IG.- Urte batzuk egin dodaz arlo honetan. Hizkuntzea, berbak-eta ikasi dodaz, baina berbakaz batera mundua ikusteko beste era bat be ikasi dot edo, hobeto, ikasten nabil. Euskaldunen begiez mundua ikusteko beste era bat. Euren bizipenak irakatsi deustez. Hizkuntzeagaz batera, biziten be irakatsi deustelako eta kulturearen zertzeladak-eta emoten deustezalako, eta azkenean, euskal kulturearen partaide egiten nabe. Ni euskaldun barria naz eta euskaldunen artean integratu guran, euskerea ikasten hasi nintzan. Behar honen bidez lortuten dot, neurri baten, ba, euskaldun normala izatea. Herri bat bera garana konturatu naz. Euskal Herrian ezbardin egiten dogula esaten

danean, ezbardintasunok azaleko-ak dira. Herri bera gara Eskiulatik Bilboraino eta euskereak egiten gaitu herri. Bardintasunak asko be gehiago dira ezbardintasunak baino. Azaleko txikieria batzuk baterik eta bestera aldatuten dira, baina sakon-sakonean dagoana herri bera da, hizkuntza bera eta hori benetan garrantzitsua da.

**TX.- Esate baterako, Bilboko euskerea batuten eta ikertuten ibili zara. Eta oraindikarren zer baturik ei daukazula entzun dogu. Zer esan zeinkigu horren ganean?**

IG.- Ni bilbotarra naz. Parkatu, abandotarra naz. Nahiz eta gaur egun Abando Bilbo izan, ha da nire herria. Txikitan, gure aita zanak Bilboko basora eroaten ginduzan. Ni ondino erdalduna nintzan. Hango baserritarrakaz beste berbakera baten berbetan askotan entzuten neutson aitari. Bera beste berbakera horretan ibiltzen zana, pozarren ibili be, konturatuten nintzan. Urteak joan urteak etorri, auzokide hareekaz ibili nintzan euren euskerea jasoten, Larraskitun ibili, hain zuzen be. Horreek izan ziran niri txikitan ukatu eustezan kultura eta hizkuntzea. Badaukat bihotzean Bilboko euskerea, hangoa nazalako. Esaten izan da, baita euskalzale ei diranen artean be, Bilbon ez dala sekulan euskerarik egin. Uri erdalduna dala. Nik hori ezin nei onartu. Orain dala 200 urte, Bilbo guztiz uri euskalduna izan zan. Oraindino be, b e r t a k o euskaldunak b i z i r i k dagoz.

**TX.- Orain dala 15 urte g u r e r a etorri zintzazan Bakioko euskereari buruz jakitekoak jakin guran. Nogaz egon zintzazan orduan eta zer lortu zenduan?**

IG.- Lehenengo itaunketea San Pelaio aldean izan zala gogoratuten dot, andra bategaz, baserri baten. Aditzak batuten ibili nintzan orduan. Bigarrena, Feliziana Abiogaz izan zan. Berba barri bi ikasi nebazan orduan. Ez neban jakin bidea eta andra bateri haren etxera

joateko bidea zein zan itandu neutson, eta esan eustan: «han burra baten da». Ño! BURRA berbea orduan ikasi neban. Eta BIAGO berbea be bai. Geroago, Feliziana Abiogaz beste itaunketa bat egin neban, sintaxiaren ganerakoa. 1990ean Enrike Zabalagaz egon nintzan. Azkena 1993an, oraingo txandearen aurrean, Jose Mari Antxustegigaz egin neban. Ume munduari buruz ordu beteko grabaketea egin neutson. Beste bat Andereño deritxon andreak lagunduta egin neban. Azkuek berak, Bakioko euskereari buruz beraren ikerketea egin ebanean, orduan euki eban barriemoilearen alabea izan zan nirea. Bost itaunketa horreek egin dodaz, bai. Material hori hor euki dot, etxean, eta behar honetarako erabiliko dot. Horreek izan dira arteragoko beharrak.

**TX.- Orain artekoan Bakion entzundakoa eta ikusitakoa gogoan hartuta, zelan ikusten dozu euskerea Bakion? Esan gura dot, zer deritxozu Bakioko euskereari?**

IG.- Nik uste dot, Bakioko euskerea euskera arrunta, normala, naturala dala. Biziteko balio dauan hizkuntzea. Baina, zoritxarrez, transmitiduten ez dana. Idietan be, buztarrian, idi bi buztartuten dira. Euskereari be, antzeko gauzaren bat pasetan jako. Buztarri bakarrak ez dau balio. Buztarriak bikoia izan behar dau. Betiko euskerea behar dogu, euskaldun egiten gaitualako. Bakioko euskereak euskaldun egiten ditu bakiotarrak eta, maila batzuetan, bizi ahal izateko balio deutse. Eta euskera batua, baina euskera ona, euskera indartsua, euskaldun oso izateko, telebista ulertu, karrera bat euskeraz ikasi, aldizkari ta egunkari nazionalak irakurri, ganerako euskaldunakaz bizi ahal izateko,... Baina batak ez dau bestea kenduten. Bestela, euskera biak ez badira ondo buztartuten, arriskua daukagu hankamotz lotuteko. Hori da euskaldunak ikasi behar doguna. Nik pentsetan dot Bakioko euskereak badaukazala gauza onak, eredu linguistikoak, emon ahal izateko. Idazterako orduan, esaterako. Zergaitik ez erabili hemen ikasten doguzan berbak, esapideak eta esateko moldeak?

«BAKIO SANO  
HERRI  
EUSKALDUNA  
DA ONDINO»

Maila batzuetan idatzi eta erabili leiz euskera batuan. Euskera batuarenak diralako. Azken baten, euskera batuak euskaldun guztion identifikazio gunea izan behar dau, baita bizkaitar eta bakiotarrena be. Bakiotarrek euren euskerea ez badabe hor isladatuta ikusten, ez dabe euskera hori euretaketat hartuko. Hor dago kakoa. Etorkizunari begira zer? Nik esango neuke, une honetan garrantzitsuagoa dala familiar transmitiduten dana, beste inon ikasten dana baino. Hori da etorkizunerako oinarria. Eskolea sano garrantzitsua da, komunikabideak be bai, baina etxeko transmisioa, betiko euskerea seme-alabei lotsa barik eta ezelango konplexu barik transmitidutea etorkizunari begiratutea da. Nik, behintzat, ez daukat dudarik horretan.

**TX.- Bakioko euskereak musikalidade berezia euki badauka. Horregaitik erdaldunek urteetan Bakioko euskaldun askori barre egin izan deutsee, jakin barik hizkuntzearen aberastasun itzela dana. Arlo horretan jakitun zaran aldetik, zuri zer begitanduten jatzu dalako musikalidade hori?**

IG.- Askotan, erdaldunei-eta esaten entzun izan deutset: «ez dakit nongo euskerea, euskera txarra dala». Erdaldun batek ez dauka kriteriorik, ez dauka jakiterik euskerearen ganean ezer be esateko. Zergaitik izan behar dau hemengo euskereak horkoak baino txarragoa edo hangoak baino apalagoa? Hizkuntzak balaiagarriak dira, hitzunei balio izaten deuten artean. Eta hemengo hitzunei, hemengo herri-tarrei bertoko euskereak gizaldi eta gizaldietan biziteko eta kultura egiteko balio izan badeutse, zergaitik orain ez? Gai honeri buruz tutik ez dakianak beti esango dau guzurrezko berbea. Errespetu eta edukazio kontua da. Jendeak badaki zer esan behar dauan eta, ganera, oso ondo egiten dau euskeraz. Gero, musikalidadea dala-eta, esan behar dot, musikalidade berbeaz erdaldunek zer ulertuten daben ez dakit, baina fonologo nazan aldetik, hemen egiten dan hizkuntza eredu (Getxotik eta Mutrikurainokoa) Europa osoan beste hiru hizkuntzatan antzera, eta ez modu berean, baino ez dala egiten.

Hemen daukagun altxorra ez dakigu guk preziatuten. **PITCH-ACCENT** deritxon moldea egiten da berton. Horrek itzelezko balio linguistikoa dauka. Baina, euskaldunontzat bakarrik ez, munduko hizkuntzalari guztiontzat itzelezko balioa dauka. Eta amen daukagu, etxean daukagu. Guk egiten doguna da. Beharbada, baten bat kanpotik, asagotik, etortea behar izango dogu, guri etxean zer daukagun esan daiskun. Bakioko euskereak, bada, badauka zer erakutsirik.

### «BETIKO EUSKERA TRANSMITIDU BEHAR DA»

**TX.- Bakioko gazteen artean, zoritxarrez, euskera gitxi be gitxi entzuten da, ia bapez entzun be. Bakioko euskerarik, oraindino-karren gitxiago. Zeozelan, euskereak Bakion balioa galdu dau. Halandaze, euskerearen transmisioa eta etorkizuna Bakion egoera negar-garrian dagoz. Zer esango zeunskie Bakioko gazteei euren nortasunari eutsi daioen?**

IG.- Internet, informatika eta holako gauzak etorri diranetik hona mundua gero eta txikerragoa da. Geroago eta txikerragoa izankeran, danok alkarrengandik geroago eta parajeago gagoz. Ha ta guzti be, ingelesa behar dogu, alemanera be bai... Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, burua zabalago eukiko dogu danok eta aberasgarriagoa izango da danontzako. Baina, euskaldunok mundua gure begie ez badogu ikusten, ez gara izango euskaldun. Erromatarrek orain dala bi mila urte etorri ziran gurera. Euskaldunok orduan ikasi genduan erromatarrek alkarregaz biziten. Ez gara herri itxia izan. Guretik mundu guztia igaro da. Orduko euskaldunek jakin eben erromatarrei ikasten, norberarena galdu barik. Euskaldunek jakin behar dogu amerikarrei, ingelesari, alemaneari ikasten, eurokaz alkarregaz biziten. Eurok aina europarrak gara, eurok aina modernoak, baina geureari eutsi behar deusogu, hau da, euskeraz egiteari eta euskerea

transmitiduteari. Nik pentsetan dot, oinarri sendoak etxean badagoz, etxean ipinitako eta eskolan landutako oinarriak, gazte horreek aurrera atarako dabela euskerea. Arduragarriena, ez da kontzientziarik ezea, tresna linguistikorik ezea baino. Hau, etxean euskerea ez dalako ondo transmitidu eta eskoleak ez daualako aprobetxetan jakin izan etxetik datorren altxor hori. Beraz, ingelesari bai, txinereari be bai, baina euskerea besteen parean, gitxienez, Euskal Herrian besteen ganetik egon behar badau arren. Bakioko gazteei horixe esango neuskie, horixe izango litzake mezua. Gazte horreek euskeraz egingo dabela itxaropena badaukat. Betiko euskerea be gaurko euskereagaz buztartuten jakingo dabela, biharko euskal kultura osoa euki daigun.

**TX.- Eskerrik asko!**

### NOR DA IÑAKI GAMINDE?

1958. urtean Abandon jaio zan. Butroiko Ester Elgoibargaz ezkondu dago. Seme-alaba bi daukez: Jon (12) eta Ursua (8).

Begoñako Txurdiragan bizi dira. Hamazazpi urteagaz ikasi eban euskeraz egiten. Iñaki gatikarra ez izanda be, Gatikako euskeraz ederto baten egiten dau. Urte batzuetan behargin lez fabrika baten behar egin ostean, magisteritza eta euskal filologia ikasi eta amaitu ebazan. AEKAn irakasle ibili da urte askotan. Euskal filologian Doktore da eta Euskal Herriko Unibertsitateko linguistikako irakasle dogu Deustuko Magisteritza Eskolan. MENDEBALDE izeneko euskera taldeko kidea da. Hainbat eta hainbat liburu eta aldizkari berezitetarako artikulu idatzi eta argitaratuta daukaz. Han-hor-hemenka ibiltzen da, Euskal Herri osoko herrietako euskerak ikertuten. Gehien bat, fonetika esperimental, lexicologia eta hizkuntzearen didaktika dira


# ZUGATZ EGUNAREN OSPAKIZUNA BAKION

Hau ez da txantxetakoa izan!

Santa Ageda egunetik geunden lan hau prestatzen. Baserrietatik joan ginenean, hostoak batu genituen poltsa batean sartuz. Klasera heltzerakoan, periodiku tartean jarri genituen lehortzen, geroago mural bat egiteko asmotan.

Beste alde batetik informazioa lortu genuen Bakioko zuhaitz moten zerrenda egitekotan.

Aurreko guztia eskolako hormairudietan daukagu. 1998.eko otsailak 27an zuhaitz eguna ospatu zen. Kultur Etxeako enparantzan batu ginen. Handik Bentara bidean, zuhaitzen izenak esan genituen. Han geundela, taldetan jarri ginen, bakoitzak zuhaitz bat landatzeko. Lau mota landatu genituen: haritzak, urkiak, gereziendoak eta lizarrak.



Bukatzerakoan, sari bezala bokatak, edariak eta paketeak eman zizkiguten.


Aurreko aldian zuhaitz gehienak hil zirenez, oraingoan, bakoitza zuhaitz baten zaindari izango zela proposatu ziguten. Beraz, Jasek emandako krokisarekin bakoitzak bere zuhaitza non dagoen jakingo du eta horrela, noizbehinka ureztatzen joango gara.

## DENON ARTEAN NATURA ZAINDU DEZAGUN!

*Bakion 1998.eko martxoaren 10ean. Lehen Hezkuntzako 6. mailako gazteak*



## BAKIOKO ABADE BARRIA



JON AINGERU GOIKOETXEA URIARTE, igazko abenduko 8tik Bakioko abade barria dogu. Zeanuriko semea dogu. Bertan 1936. urtean jaio zan. Abadetzarako ikasketak Arte, Gasteiz eta Derion egin ostean, 1960.ean abade egin zan. Beraren abade-beharra Dima, Atxondo, Durangoko Madalena eta Abadiñon egin dau. Azkenengo 16 urteotan Lekeition egon da, Aulesti eta Munitibar be zerbiduten ebazala. Jon Idigoras gaixo-saritu eta Luzio Urreta hil ostean, Bakioko Andra Mariaren parrokiako arduradun izendatua izan da. ONDÓ ETORRIA!

*«Berton zure iragarkia argitaratu ahal izango dozu»*



# EUSKERA NORMALKUNTZA PLANGINTZEA BAKION

Alkarteotako partaideok jakingo dozuen lez, Bakion honezkero abian ipini da euskerea normalizatzeko plangintzea. Orain arte alkarteetara jo eta horreei egitasmoagaz bat egiteko eskatu egin jake; era berean, euskerearen egoerearen ganeko datuak hartu egin dira zehatz-mehatz jakiteko zein dan alkarteotan euskereak daukan osasuna. Behin datu horreek guztiak batu ostean, aztertuko da zein dan erakundeok berreuskalduntzeko bidea. Horretarako, batzuek lehenengo pausoa emon dozue euskera-arduraduna izendatuz; guztiagaz be, hemendik gitxira ikusiko da zeintzuk diran euskerea bizkortzeko lan ildoak. Horreek zehazteko, SIADECO ikerketa-enpresearen urteetako esperientzia eta aholkuak hartuko doguz kontuan. Azken baten, helburua euskerea beharrezko-beharrezkoa dan guneak sortzea da, horreen bitartez herriko gizarte bizitzeari eragiteko eta herri osoa



San Martin baseleizan

apurka-apurka baina eten barik berreuskalduntzeko. Beraz, badakizue zein dan alkarteetako partaideon zeregina: ahalegin txiki bat egitea, euskereak aurrera egin daian zuen ingurune horretan eta horrela

egunean-eguneango guztion bizi-moduan. Biartean alkarteetako bazkide guztioi eskerrak emon behar deusueguz, planari harrera ezin hobia emon deusazuelako.

Joseba-Euskera Teknikaria

## BAKIOKO KULTUR ETXEAKO ALBISTEAK

### apirilako egitaraua



Apirilaren 11an: Kultur Etxeako bideo gelan, arratsaldeko 18:30etan «Oihaneko liburua» pelikula.

14, 15 eta 16an: 6 urtetik 9ra bitarteko **umeentzako JOLAS TAILERRAK**, arratsaldeko 17:00etatik 19:30etara. Izena emon Kultur Etxean, arratsaldetan, apirilaren 8a baino lehen. 500 pza.

18an: Kultur Etxeako bideo gelan, arratsaldeko 17:00etan «**Txerrikume atsegina**» **marrakzi bizidunak**.

18an: Arratsaldeko 20:00etan, 13 urtetik gorakoentzako **ANTON IRUSTA ipuin kontalaria**, Kultur Etxean.

21 eta 28an, **Esku Pilota Tailerrak**, arratsaldeko 18:30etan, Kultur Etxean.

Kultur Etxeako Erakusketa Gelan: Jone Sagasti eta Ana Lezetaren lanak.

# BAKIOKO EUSKEREA - I

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun.  
Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa  
eta aberatsagoa da. Jagon daigun!

Oharra: Era bitara dakarguz, esaterako,

- zelan idatzi behar dan: «urtarrila»
- Bakion zelan esaten dan: «(urtérrille)»

## URTEKO HILEAK

urtarrila (*urtérrille*)  
zezeila (*seséille*)  
martia (*martídx*)  
apirila (*aprílle*)  
maiatza (*maiétza*)  
bagila (*bagílle*)  
garagarrila (*garágarrille*)  
abuztua (*abústue*)  
iraila (*iraílle*)  
urria (*urrídx*)  
zemendia (*seméndídx*)  
abendua (*abéndue*)

## ASTEKO EGUNAK

astelehena (*astélena*)  
martitzena (*martítzena*)  
eguztena (*egústena*)  
egüena (*egúena*)  
barikua (*baríkue*)  
zapatua (*sapátue*)  
domekea (*domékie*)



## URTAROAK

negua (*negúe*)  
udabarria (*udebárrídx*)  
udea (*udíe*)  
udagoiena (*udegóídxena*)



Iniaki Martiartu

*esakera zaharrak, guzurrik ez*



# Non dagoz honeek?

Erantzuna badakizu, ekarri ahalik arinen KULTUR ETXEAra .

Epea bagilaren 13an amaituko jatzu.

Itzi zure izena eta tfno. zenbakia.

Erantzuna igarriko dabenen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

**Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan**

# TXOBERNE

Benta Alde, 148  
48130 BAKIO

Berton-bertokoa gozatuteko  
leku aproposa  
Bakioko txakolina, sagardaoa  
eta jateko giro ezin hobiauau

Tfno.-zkia.: 94 619 41 81

# BERTSO AFARIA-98

## ELORTZA eta ITURRIAGA, bertsolari

Urtero legez, aratoste sasoiari, bertso-afaria ospatu genduan Bakiotarrok. Berrogeita hamar lagun inguru batu gintzazan GORRONDA txakolindegian, Igor eta Unairen ahots zailduen gerizpera. Bertso bikainak eskaini euskuezan, era guztietako neurri eta doinuak erabiliz. Beti umoretsu, euren buruak zein gureak, Bakio, euskara, txakolina, neska-mutilen arteko ikamikak, eta abar..., gaitzat hartuta.

Itziar, Gregori, Andoni eta Julenek prestatutako afari gozoak eta txoko parebakoak lagundu eben giroa eta gaua biribilduten. Irudiak dira igarotakoaren lekuko...



Argazki honetan agiri diran belarriak zaba-zabal ipini ezkeroran, zenbat m<sup>2</sup> batu leitekez? Egizue postura!



Igor eta Unai, Bakioko nesken edertasunak jota, tematu ziran eta lortu, eurakaz erretratatu ataratea.



Bazter honetan egozanak, argazkilaria beharrean ikusi ebenean, botila guztiak desagertarazi eta ur-pitxarra ezarri eben mahai ganean. Beti zuhur!

**Igor ta Unai gure kontura  
makinatxu barre e(g)in eben.  
Bertso zorrotzak adarjote eran  
besterik ez zan entzuten.  
Gau hatan mutil zitelonei  
eutsi behar izan bageuntsen,  
zuhur ibilteko!, bakiotarrok  
badakigu itxaroten.**

(zortziko nagusia)

I. Martiartu

# ZAHARRAK BARRI

Urteak joan eta gero, nork esango eban urte hareetako haretza nasai eta baketsuak holan amaituko ebanik. Eta bai! Horko hori BITZ-GANE dozue, solairu bat gora-behera. Orduan, haretza aurrean egozan etxe bakarrenetarikoa zan. ITXAS-BEGIgaz batera. Orduan hasi ziran udatiarrak etorten. Hasi, bai, etorten hasi eta euren etxe erraldoiak eregiten hasi be.

Argazki barrian ikusi daikegun lez, gure haretzea guztiz aldatuta dago.



*Taberna, denda, tailer zein beste edozeinentzako iragarki  
lekua izango da hau.*

# ERDU GEUGAZ! IBILALDIA-98 MUNGIAN

*Aurten, Bizkaiko ikastolen jaia, IBILALDIA-98, Mungian egingo da. Antolatzaileetariko bategaz, Iñaki Goirizelaia mungiarraz, egon gara horrerri buruz berbetan. Bera da jai handi horren koordinatzaile nagusia. Hara, zer esan deuskun!*



**TX.- Aurtengo IBILALDIA-98 maiatzaren 31an egingo da, Mungialdeko Larramendi Ikastolak eratuta, Mungian bertan eratu be. Zer dala-eta aurton Mungiara?**

IG.- Dakizuen lez, IBILALDIA urtero antolatzen dan jaia da. Bizkaiko ikastoleen eta euskerearen aldeko jaia da. Orain artean, ez da Mungian egin izan eta Larramendi Ikastolan pentsatu genduan bazala sasoa IBILALDIA Mungian egiteko. Hori zala-eta, Bizkaiko Ikastoleen Federazioan gure proposamena aurkeztu genduan eta aukeratuak izan gintzazan. Uste dogu, oso aukera ona dala, holako jai polita Mungian egiteko. Esan dodan lez, bazan sasoa.

**TX.- Zeintzuk dira lortu gura dozuezan helburuak?**

IG.- Holako jairen bat indarrean ipinten danean, helburu ezbardin asko egoten dira. Alde batetik, euskera eta euskerearen erabilpena zabaltzeko helburu argia. Gure ustez, holako jaiak eragin polita eukiten dabe beti, hau da, IBILALDIA egiten dan tokietan. Eta ez hori bakarrik, ez euskerearen erabilpena bakarrik, beste alde batetik, baita euskal kultura eta euskal kultureagaz zerikusia daukan guztia be. Hori be zabaldu gura dogu. Badagoz egon helburu ekonomiko batzuk be. Aurten gure ikastolan oso inbertsino handiak egin doguz: eraikin barri bat egin dogu, haurtzaindegia indarrean ipini dogu... Hori guztiori dala-eta, helburu ekonomikoa be badaukagu, egindako inbertsinoei aurre egin ahal izateko.

**TX.- Larramendi Ikastola izena aitatu dogun ezkerroan, azaldu eiskuzu berba gitxitan ikastoleak emoten dauan irakaskuntzea zelakoa dan.**

IG.- Ikastolearen irakaskuntzea, danok dakigun lez, irakaskuntza euskalduna eta kalitatezkoa da. Gu jo ta ke gabilz beharrean irakaskuntza euskalduna eta

kalitatezkoa emon ahal izateko.

**TX.- IBILALDIA-98rako aukeratu dozuen leloa ERDU GEUGAZ dogu. Zer dala-eta aukeratu dozue lelo hori?**

IG.- ERDU GEUGAZ leloa zer dala-eta? Hori, bai, itaun polita. Arrazoi asko dagoz. Alde batetik, ERDU Bizkaiko berbea da, berba zaharra. Mungian asko erabilten dana eta Bakion be bai. Inguruko herrietan erabilten da eta geuretzako oso berba polita da. Berba hori birreskuratu gura izan dogu. Gero, beste alde batetik, ERDU GEUGAZ leloaren bidez gonbidapen zabala adierazo gura dogu. Gonbidapen zabal hori, zertarako? Ba, gure irakaskuntza proiektu euskaldun horretan eta jaietan be esku hartzeko. Esku hartu eta jaiak GEUGAZ gozatzeko. Beraz, ERDU GEUGAZ, gonbidapen zabala, alai eta irribarretsua da.

**Ibilaldia 98  
euskera eta  
euskal  
kulturearen alde**

**TX.- Maiatzaren 31an egingo da, bada, IBILALDIA-98. Esango deuskuzu, apur gorabehera, zeintzuk diran edo izango diran eratu dozuezan ekintzarik nagusienak?**

IG.- Ekitaldi asko antolatu doguz orain artean eta ondino gehiago antolatuko doguz. Guk IBILALDIA egun bakarreko jai erraldoia bakarrik ez dalakoan gagoz eta horregaitik zabaldu gura izan dogu jai hori urte osoan zehar. Hori dala-eta, ekitaldi asko egin doguz. Adibidez, atzo Mikel Laboa egon zan gure artean. Berak aurten egin izan dauan lehenengo kontzertua izan da. Datorren astean Maria Bayo soprano ospetsuak Arriagan abestuko dau

IBILALDIaren alde. Maiatzean, barriz, Benito Lertxundi egongo da hemen. Oso kontzertu polita izango da eta bakiotar guztiak amen ikustea gura geunke. Beste alde batetik, maiatzaren 31an IBILALDIaren egun beratan, gauza asko egongo dira, urtero izaten dan lez, bai kontzertuak, bai dantza taldeak, bai musikea, edozein motatako musikea... Nik uste dot, osogai guztiak egongo dirala, oso egun polita emon daigun. Etorri! ERDU GEUGAZ!

**TX.- Noiz hasi zintzazen IBILALDIA-98 eratuten?**

IG.- IBILALDIA orain dala urte bete ta hilabete pare bat hasi gintzazan antolatzen. Holako jai handia indarrean ipinteko ahalegin handiak egin behar dira, batez be, antolaketan esku hartzen dogun guztiok beste zeregin batzuk be badaukaguzala kontutan hartuta. Sasoiz hasi gintzazan eta horretarako batzorde asko beharrean dagoz. Hor, lan handia egin dogu orain arte.

**TX.- Erakuntza guztia egiteko behar handia egin beharrean egon zaree, ezta?**

IG.- Erantzuna. BAI! Argi dago holako montaketarean bat egiterakoan behar handia egiteko dagoana. Zenbaki bat aitatuکو deutsuet, adibidez, egun horretan 2.000 lagun beharrean egongo dirala estimatzen dogu. Gure prebisinoak beteten badira, egun horretan 130.000 lagun etorriko dira IBILALDIara eta lagun guzti horreei zerbitzu ona

emoteko, jende asko behar da. Hori guztiori indarrean ipinteko, egun bakarreko enpresa handia montatzea dala esango neuke. Eta horrek itzelezko ahalegin handia eskatzen dau.

**TX.- Non eta noiz izango da datorren urteko IBILALDIA? Nork eratuta?**


IG.- Datorren urteko IBILALDIA Elorrión egingo da. Elorrioko ikastolea, danok dakigun lez, oso egoera larrian egon da. Baina, gure ustez, IBILALDIaren eskutik ikastola hori aurrera atarako dogu. Oso toki berezian dago eta danon laguntzinoa behar izango dau berak.

**130.000 lagun  
etorriko  
ei dira**

**TX.- IBILALDIA egunerako laguntzinoa behar izango dozuelakoan nago, TXIRRITXOLAREN leihoa zabalik dozue bakiotarren laguntzinoa eskatu edota beste edozer eurei esateko...**

IG.- Hasteko, eskerrak emon gura deustuedaz, zeuei be gonbidapen zabala egiteko amen emoten deuskuzuen aukereagaitik. IBILALDIA ez da geurea bakarrik, danona da eta bakiotar guztiak gonbidatuta zagoze hemen geugaz egun polita emoteko. Esan behar dogu be, danon laguntzinoa behar dogula eta laguntzeko prest dagozanak, ba, ikastolara etorri daitezala izena emoten. Ziur behar egiteko lekutxuren bat eukiko dabena. Badakizue, ERDU GEUGAZ!

**TX.- Eskerrik asko!**



*Ogi gogorrari, hagin zorrotza*

# Itxas-Alderen Barriak

## ITXAS-ALDEren LIBURUA DABORDUKO SALGAI!

ITXAS-ALDE Dantza Taldea 1972. urtean sortu zan, herrian egoan eskabideari erantzun guran sortu be.

Jaio zanetik eta gaur artean, Euskal Kultura ikastea eta zabalduetea izan dira beraren zereginik handienak.

Taldearen bizkarrazurra Dantza Taldea izan da beti eta holantxe izaten jarraituten dau. Euskal Herri osoko dantzak, musikak eta jantziak jantzita egon dira eta dagoz egon Bakioko makina bat gazte eta oraintsu arte gazte izandako. Beste aldetik be, Olentzero, Bakiora lehenengoz, ITXAS-ALDEren eskutik etorri jakun, orain dala hogeitaka urte inguru eta urte luzeetan geugaz egiten eban dantza eta abestu. Santa Agedari be urtero gogotsu abestuten geuntson. Sasoi



baten, abesbatza eta antzerki taldea be sortu genduzan, taldeari beste neurri handiago bat emon guran edo. Talde barruan euskerea indartu eta zabalduetea asmoaz, alfabetatze eta euskalduntzeari be ekin geuntzen, KILI-KILIren bidez eta laguntzaz, ekin be. Bakion egin izan dan I. Euskal Kultura Astea ITXAS-ALDEren eskutik be eratua izan zan.

Euskal Kultureari jagokozan ekintzarik ekintza ibiliz, ITXAS-ALDE «Euskal Kultura Taldea» bihurtu eta izendatu genduan. Ezin dogu esan barik itzi, bada, Bakio dan herri txikerrera eta gurea izan dan talde apalerako, sano arrakastatsua izan zirala eta dirala egindako ahaleginak. Beioakez hemetik, bada, joandako hogeita bost urteotan asmo apal ha gaurko lako talde bihurtuten behar egin edota lagundu izan dabenei gure zoriona eta eskerrona!

Gaur egun, ITXAS-ALDE ehun lagunetik gora osotuten dogu, danok gazteak. Taldearen helbururik nagusiena euskal dantzak eta betiko musikak ikastea eta zabalduetea da. Gure «dantzategian» ehundik gora euskal dantza egiten badakiguz jakin, Euskal Herriko lurralde guztietakoak, hatan be. Dantzaldi eta ekitaldietan euskal musika tresnok erabilten doguz: txistua, dultzainea, txirulea,..., eta baita euskal folkloretik kanpotik gurera etorritakoak be, esate baterako, trikitia, soinu nagusia, panderoa...

Bakioko jaietako ekitaldiez ganera, Bizkaiko eta Euskal Herriko beste hainbat tokitara joan izan gara euskal folklore aberatsa erakustera, bai ekitaldi pribatuetan, bai beste talde batzuekatz batera egiten diran dantzaldietan.

ITXAS-ALDEk dauazan helburuetariko beste bat munduko beste kulturak ezagututea eta hartuemonak egitea da. Hau trukaketen bidez lortu izan dogu. Hori lortuteko, jaialdi nagusi bat eratuten da urtero herrian. Atzerritik hona ekarritako taldeen ikustaldien truke, haren herrialdera joan ahal izan dogu, joan be. Asmo hau dala-eta, 1991. urtean hasi zan ITXAS-ALDE Euskal Herritik kanpora joaten. Harrezkeroan, Portugal, Frantzia, Errusia, Catalunya, Turkia eta Italian izan gara, euskal nortasunaren ikurrina edonon astinduz.

Esandakoaren lekuko, 25. urteurrena ospatukeran argitaratu dogun liburua dozue. Orri mardo hori argazkiz beteta dago. Argazkiotan, joandako 25 urteotan zuotariko asko be asko agertuten zaree. 3.500 pts-tan dogu salgai. **Erduze haren bila!**

ITXAS-ALDE

Euskal Kultur Taldea



# BAKIOKO ABESBATZA

Begoñako Aste Koralean parte hartu ondoren, geure basoetan entzuten hasiak garen kukuagaz batera hasi gara geu bere bazterrak alaitzen negu osoan zehar landu dogun kantu sorta politagaz.

Lau ekitaldi egokitu jakuz aurtengo udabarriko kontzertuetan -San Anton Abesbatzagaz eta Astrabuduako umeez batera- honako leku eta egunetan:

-Martiazen 27an, La Peña auzoko Artzain Onaren Elizan

-Maiatzaren 8an, Astrabuduako Kultur Etxean

-Maiatzaren 23an, Bakioko Parrokian

-Maiatzaren 31ean, Arrietako Parrokian

Tartean, ezkontza batean abesteko eta maiatzaren 16an gure herriko zenbait gaztek sendotzako sakramentua hartuko dabenez elizkizun berezia gure abestiekaz aipatzeko hitza emon dogu.


Bestalde, igaz Mungiako Abes-

batzagaz hasi genduan lankidetzari eusteko egitasmo batzuk lantzen gagoz une honetan, eta hasi gara dagoeneko uztaileko Musika Astea prestatzen. Lanik, beraz, ez dogu falta.

Ohi dogun legez, Txirritxolak eskeintzen deuskun txokotxo hau aprobeztatuz, dei zabal bat luzatzen deusuegu musikazale

zarien guztioi -nahiz gazte nahiz adineko, musikan trebatuak ala ez- urte osoan zehar bariku eta zapatuetan lagunarte giro ederrean egiten doguzan entsaioetara etorri zaitez. Harrera ezin hobea egingo jatzue!!!

(Oharra: Lantzean behin parrandaxoren bat antolatzen bere maixuak gara).



## Bakioko Futbol Taldeak zezeilaren 16tik jorrailaren 6ra arte eukitako emoitzak

Ikusi daitekeen lez, gure herriko futbol taldeak azken zortzi jardunaldietan euki dauazan emoitzak ez dira lar onak izan. Halan bada, partidu bat irabazi, beste lau bardindu eta beste lau galdu dauz. Gure mutilak momentu honetan 13. postuan dagoz eta 36 puntu daukez. Antza, taldea arriskutik kanpo dago, baina apur bat zabartuz gero, sailkapenaren beheko aldera joan leiteke. Eutsi goiari!

Iturrigorri 1 - Bakio 1  
Bakio 1 - Sondika 2  
Indautxu A 0 - Bakio 0  
Sodupe 2 - Bakio 0  
Bakio 0 - San Vicente 1  
Iurreta A 2 - Bakio 2  
Bakio 5 - Balmaseda 0  
Ortuella 1 - Bakio 1

*Baltz guztiak ez dira ikatzak, ez eta zuri guztiak edurrak*

# AEKn ikasten dabilen guraso taldea

## URTEETAN ZEHAR... GOGORATUZ

Lehen, euskeraz ezin egin eta orain alfabetatzera etorri behar. Bildurra eta lotsa alde batera utzita. Lehen derrigorrez eta orain gure gogoz.

Umetan ez zen diferentziarik egoten gure artean, Bakion, denok izan ginen antzekoak. Udan bakarrik igartzen genuen klase diferentziak. Udatiarrak handi eta gu kriadu. Euren bizimodua ikusikeran geuk be baseritik urten guran.

Egun haietan penak eta pozak nabaritzen dira.

Sei urte gaz hasi ginen eskolara, bata zuria jantzita bertan zer topako ikaraz. Heldu bezain laster lehenengo ikusten zena zementozko patioa eta Españako bandera zen, eta klasera sartu baino arinago kanta egin behar: «Viva España, alzad los brazos hijos del pueblo español que vuelve a resurgir» gerrako garaileen himnoa. Ostean, erreza eta «Caton» delakoa ikasi behar. Zigorra gure eguneroko ogia zen eta etxerako beharrek hainbat negar eta buruhauste eragin euskuen.

Orduan ez genduan eukitzen gela bat maila bakoitzarentzako, denak nahasten ginen gela handi baten señorita bakar bategaz,



bakoitzak berarena ikasten.

Gaur egunean, gure umeak noizgura irtetzen dira eskolatik hara edo hona, guk ez genduan holako suerterik. Urtean zehar egiten genduzan irteerak honeexek ziren: «Santa Catalina» egunean; parez pare genduan lez ermita, bertora joaten ginen meza entzutera eta, ostean, surtidoko galletakaz bete-bete eginda bueltatzen ginen poz-pozik eskolara, gehien bat, irtetzeko ordua zelako. Udan, aro ona eginda, arratsalde baten haritzara eramaten gintuen maestrak eta berton ematen genduzan

eskolako orduak. Gero, kurtso amaieran exkursio bat egiten genduan gurasoekaz.

Ikasteko modua ere desberdina zen, buruz ikasi behar dana. Taulak abestuz eta letrak mimikaren bidez.

Eskolan, umeen artean, salakeria sari-tuta egoan eta denok sartzen ginen joko horretan, señoritaren begikoa izateko. Zigorrak tutik esan barik onartzen ebezan gure gurasoek, zeren eurentzat herriko indar nagusien (zibilak, alkatea, maisua eta abadea) esana euren zeregina zen. **Bildurra nagusi...**

Jai gutxi eukitzen genduan lez, edozein gauza zan atxaki liburuak alde batera uzteko. Esaterako, maestraren urtebetetzea. Egun horretan enzeradu guztiak margotzen genituen kolorinetako tizakaz eta gure festibalean Lola Flores ere agertzen zen.

Maiatzean loren hila ospatzen genduan eta egunero abesten geuntsan Amabirjinari. Gabon aurrean nazimientoa ipintzen egoten ginen arratsalde oso baten. Ilusio handiz ospatzen ziren egun horiek.

Gure olgetak sinpleak ziren, baina irudimena lantzen laguntzen euskuen. Gehien bat hauek ziren:

- Kaniketan: horretarako haritzak ematen ebazan pox-polinak erabiltzen genduzan. Geroago kristalezkoak agertu ziren.

- Tabak: hezurregaz eginda. 1., 2., 3. eta 4. ere topetan genituen hezur haietan.

- Inkera: burdin bategaz basatan.

- Trukame: «tala» deitzen gendun harri zapal bat. Hoberenak marmolezkoak ziren, baina gatxak ziren topatzen. Honegaz eta tiza bategaz olgeta eginda egoan.

- Quemadatarra: pelotagaz talde handi bat.

- Diabolo eta abar.

Hauek izaten ziren gehien bat errekreoan egiten genduzanak. Baina auzoan jolasterakoan denetarikoa egoten zen. Umeak danak batu eta Oestera joaten ginen, egun batean, bestean Erromara joateko. Bitartean, errekatik latak hartu eta dendak sortzen ziren edonon.

Apaintzen, ere, nahiko denbora ematen genuen. Neskak danak takoiekaz. Horretarako galipota egon behar zen bigun eguzkiaren eguzkiz eta berton sartzen genduan harria edo lata zakar bat, gero zapata azpian pegetako. Azazkalak gorri-gorri eroaten genduzan geranioaren lorakaz.

Ezkontzak, ere, noizgura egiten ziren eta denak egoten ginen prest nobia izateko. Aritxetako bidean hartzen

genduzan lorakaz belo ederrak sortuz.

Gaurko eta orduko umeak zoriona gauza desberdinetan topatzen dabe. Ahaztu barik, lehen kotxe beltz baten Sacalamantekaz agertzen zela Bakiotik, eta dardaraka paretan ginela gaiztakerien bildur.

Amaitzeko, esan lehengo eta oraingo umeak oso desberdinak direla, baina gauza batek lotzen dauzela, **INOIZ EZ DUTELA AHAZTUKO LEHENENGO ESKOLA.**

*Bakioko AEKn alfabetatzen dabilen guraso taldea.*



# PILOTA TALDEA

Aurrera darraigu, ALAI-TASUNAKOAK, urte hasieran egitaratuak garatzen, beste batzuen artean, ondino fresko daukaguzan «San Joseko 24 orduak»; inoiz baino arrakasta handiagoa lortu arren, hasiera batean ez ginen bat ere baikor ibili. Egunak pasa hala, poztasunez asetu genuen gure nahia, 21 bikotez horniturik ikusikeran hasierako zerrenda hura. Herriko gazteek gustora erakutsi ziguten euren gogoia, prestakuntza ta konpromezua txapelketak huts egin ez dezan, logabezia ta nekearen aurka borrokatuz. Faltan bota

doguzanak neskek izan dira, aurreko urteetan ibiliak izan badira ere, aurreko bakarrik utzi gaituzte eta.

Zuhur ibili ba, bai batzuk ta bai besteak, ze Aste Santuan berriro elkarregaz egoteko gogoia (frontenis, eskupilota binaka edo biak), giharrak astintzeko kirol horretan, neska zein mutil, gazte nahiz ez hain gazte, ariketa fisiko osoa, modu errezean egiteko aukera aprobetxatu dezagun.

Beste alde batetik, aipagarria da, gure herriko umeak egiten ari diren lana betiko kirola berpizteagatik.



Garrantzi aparta erakutsi dute, txikienean, ze, konpetizioan parte ez hartu arren, buru belarri ibili badabilta eskupilota apurto gurean.

Hurrengoek «umetxoek» (neska bi ta mutil bat) martxoaren erdietan amaitu dute hartutako konpromezua, burua tente, eskolarteko pilota torneoan. Bere aldetik, «umeak ta gazteak», ez dute ondino amaitutzat emon gura aurtengo denboraldia, hortzak estuturik palari eutsiz aurrera egingo dutela esanez, harik eta txapelketatik bota arte.

Bakion, 1998.eko martxoaren 27an



*Ez ahaztu! Iraigarria imini daizun, TXIRRITXOLAK  
lekutxu hau eskainiko deutsu*

*OHARRA: TXIRRITXOLAK ez dau iraingarritzat jo daiken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izen edo irudiari kalte egin leikionik be.*

## IBILALDIA-98. Ikastolak bai, baina noren kontura?

✎ Azpian izenpetzen duen honek betidanik baloratu izan ditu eta baloratuko ditu euskeraren aldeko ekimen guztiak, baina ez ditzagun gauzak nahastu. Horretarako jo dezagun LARRAMENDI ikastolara. Aldez aurretik nere errespeturik handiena bertako irakasle eta hainbat guraso jatorri.

Aurtengo Ibilaldian, euskal-jai giroa sortuz, LARRAMENDIren etorkizuna ziurtatzeko laguntza eskatuko digute. Eta hemen dator neure kezka: nire kontzientziak ez dit uzten laguntzarik ematen. Zergatik? Hara ba:

beharko genituzke euskal guraso eta irakasle guztiak, geurea ezartzeko eremu guztietan.

- Gizartea, berez ere, nahiko sakabanaturik dago eta ordua da aniztasun hori euskal eskola bakar batean elkartzeko. Getoak mantenduz luzarorarte iraungo du elkar-jasan ezinak.

- Larramendiren bideragarritasuna, orain lau edo bost urte ikusten ez zena, alboko herriume eta diru laguntza publikoarekin bakarrik mantendu daiteke.

Beraz: Ez diru laguntza publikorik.


Ez nire laguntza pertsonalik.

*Ines Baraiazarra*



- Herriak eta batez ere herri txikiak bizirik nahi ditudalako. Beraietan Eskolak daude eta ezin ditugu hiltzen utzi geure umeak ikastolara bialduz.

- Euskera eta euskal-kulturaren arloan besteok ere bagabiltza, hor dugu «D» ereduaren urtetik-urterako handiagotzea. Publikoak ziurtatzen du gaur egun arlo hori eta bertan



**IKASTOLA BAI, BAINA PRIVATIZAZIOA INOREN KONTURA EZ, EZ MESEDEZ!**

# BAKIOKO LIBURUTEGIA - irakurzaleen txokoa

Bakioko liburutegian liburu barriak jaso doguz. Horreen artean aitagarriak dira bizkaieraz argitaratuak. Batzuk ahozko literaturaren istorioak biltzen dabez:

## Zorionak bildumaren

### *Ipuin unibertsalak eta Gabonetako ipuinak*

Umeentzako **Zientzia Xumea** saila esperimentu errezen bidez fenomeno berezi batzuk aztertzen dabez: argia, airea, soinua, beroa...

Ipuin sorta barri bat dogu:  
*Txitatxo lagun bila; Buzu otsoa maiteminduta dago; Lehoitxoa gura dot; Zorione goibel dago...*

Nagusientzako liburuak ere badagoz, Labayru Ikastegiak eta BBK erakundeek argitaratutako SUTONDOAN bilduma sortan. Adibidez: klasikoak: *Kresala, Garoa* edo *Auñamendiko lorea*. Poesiari dagokionez, Jose Antonio Uriarteren «POESIA BASCON-GADA Dialecto Vizcaíno». Hona hemen, hortik ataratako bertso batzuk.

## Eztilapurra

Erlauntz baten ostutera  
Lapur zatar bat badua  
¡O ce ezti gozua!  
Aingueruben jana bera.  
Sarri emendic aurrera  
Zaitut, diño, icusico.  
Neure aua imiñico  
Dot abao ederrian.  
Orra nun erle eztenian  
aurquitzen daben zaurija.  
Biurtzen jaco eztija  
Beaztun sabelian.  
*Laburra zan atsegiña*  
*Irauncorra bere miña*

## ROTHENBURGEKO NIRE GOGAMENAK

Ze erreza ohi da begiratutea,  
ze gatxa ezer ikustea.

Ze erreza ohi da entzutea,  
ze gatxa ezer aditutea.

Horren gatxa bada bilatutea,  
are gatxago aurkitutea.

Ze erreza ohi da maiteminduta egotea,  
ze gatxa maitatutea.

Ze erreza ohi da egotea,  
ze gatxa sentidutea.

Horren gatxa bada alkar ulertutea,  
are gatxago apala izatea.

Ze erreza ohi da berba egitea,  
ze gatxa sinistutea.

Ze erreza ohi da guzurretan eragotea,  
ze gatxa egia esatea.

Horren gatxa bada huts egitea,  
are gatxago zintzo irautea.

Ze erreza ohi da salatutea,  
ze gatxa norberaren errua onartutea.

Ze erreza ohi da ahaztutea,  
ze gatxa parkatutea.

Horren gatxa izan bada eregitea,  
are gatxago ete izango luzaro iratutea...!

Iniaki MARTIARTU

1988ko dagonilean

# 1997ko idaz-lehiaketan nagusien taldeko ipuin saritua

## EZ DAU MOZTUKO BIZARRIK

Egunon!

Kaka! Barriro be eguzki zikin horrek esnatu behar, argi larregikoa eta bortitza; ordubete gitxiagoko loa «claraboya» zatarri esker, memela temati honen kapritxoa, behitzarra, hil arteko zigorra... banoa ohezulo heze honetatik kanpora.

Txandala jantzi, artilezko jaka zaharra, ordenadoreari ekin aurretik atzoko kafea berotu, hau be norberak egin beharra; beste horren zurrunkadak ez dira, ba, etengo, ondo bizi da kolpe zorririk jo barik; arrazoia eukan amak baina sasoiz entzun ez eta ostean, belu.

Zarata dator logelatik, ez neuke aurpegi biribil hori goizerik ikusi gura, kalera joango naz, izan be laster sartu behar dot beharrera, taberna txokoan gosalduko dot gustura.

Gero eta astunagoa, luzeago egiten jat bide hau, zuloak han eta hemen, traktoreek urten edonondik, ez dago lasai gidatzerik, inoiz konponduko ete dabe; baina tira! Danetarako ez da helduten dirua be, hainbeste arazo dago herri zahar honetan, ez dauka gobernuak lan makala horrenbeste putaseme dagoan lekuan; eskolatik dator arazoa, eta etxetik; alferrak eta negartiak hazten doguz umeak, diziplinabakoak, kontsentiduak... Unibertsitatera zelan heltzen jakuzan ikustea besterik ez dago, klaseetara agertu ez, apunteak erosi, popa be ipiniko leukie aprobadauren truke, heltzen hasi baino arinagotik ustel. Baina nigaz jai dauke, ez dodaz popak atsegin, ezta emaztearena be, alajainkoa!

Departamentuko gela ziztrinak ez deust atseginik emoten, hemen balioko gauza bakarria liburuak dira, neuk eginikoak barne, taxuz eta sakon landutakoak. Bai egunak emon beharrean, nahiz familiagaz egoteko denborarik eduki ez, alabatxoak hazten ikusteko betari muzin egin, inork eskertuko baleu sikieran. Inork ez dau ikusten baina, ez da inor kargutzen inurrien antzera egindako behar itzel honegaz, ez eta agintariak be, eurei horrenbeste lan aurreratu ostean, emon, eskaini, norberaren indarrak hustu artean, osteria ostikadea emon eta kale gorrira igorri ordainetan madarikatuek.

Inork ez dau ezer egiten ezeren truke, egia santua dok hori, alkartasuna, bardintasuna berba merkeak inork sinestuten ez dauazanak. Lau memelo engainatuteko erabilten diran lelo zaharkituak, alper eta bigunen katezismotik ateratakoak. Baina oraindino be hor dabilz, bazterrak nahastuten, txakur-ametsetan, gizartea aldatuko daben esperantzan, inozo harroak, politika ohera eroango leukie honeek, bertara sartu eta beragaz lo egin, gosald... sistemak jan, iruntsi egingo dauz konturatu orduko, akatsak akats aurrera

doan makinatzar honek; lotu eta oztopo egin ezean babesten gaituan giza legezko gizarte eredu posible badabe, baina nork ez dau oker jokatuten lantzean behin... Besterik da dana okertu gura daben iluminatu horreana guztiena, asmatuta dagoana berrasmatuten denbora alferrik galduten. Unibertsitatea berrantolatu, unibertsitate propioa... memelokeriak bata bestearen ganean; eta non geratuten da katedradunon beharra, ardura, funtzinoa? Ondo kostata irabazitako statusa?

Toleranteegi ez ete garen itauntzen deusat sarri neure buruari; zer dala eta horrenbeste zarata, protesta eta liskar? Askatasun eske zalapartaka datoz, zer dan be ez dakienean; askatasuna neurritz banatu behar baita, edonork ez baitaki erabilten. Ikusi osterantzean gaur egungo gazteak, andrak, trabes antzean danak, etxerako gauza ez diranak, amatasunaren orde sexua aldarrikatzen urde merkatu baten bagengoz legez, gizonen bizio danak hartu eta amak erakutsitakoak lagata... Etxekoak sikieran neuk gidatuko dodaz, beharrak astirik izten badeust behintzat; gabonak dira betarik onena, aspaldiko partez laurok bildu eta mahaiaren inguruan egingo deutset berba, maitasunez baina bigunkeria barik, sendo eta ganoraz, badakit aurrerago eskertuko dabena Jaungoikoaren kume koittaduok...

Hara! Telefonoaren hotsa...

-Bai, hemen Anton Artezondo

-Neu naz, Flora. Bagoazela esateko da.

-Joan, nora? Zertara? Gaur 24 da eta!


-Eta bihar 25, niri bost. Gu autoa hartuta bagoaz eta Olentzerok be etorri gurako baleu, betor.

-Oraintxe noa harantza. Entzungo deustazu!

-Zeuk gura dozun legez. Grabagailuan gorde mezua eta txakurrari ipini, entzun dagian. Ah, eta ZORIONAK!.

Egun Off.

Leire Azketa Rike



# aratosteak


Aratosteak igaro barri doguzala-eta, gure herrietan jai honeek ospatzeko antxinako era batzuk agertuko deusuedaz, oraindik gaur bizirik dagozanak.

Esate baterako, Lantzen (Nafarroa) eta Zalduondon (Araba) antxinako erara ospatzen dira, dantza eta kolorez beterik. Lantzen, MIEL OTXIN pertsonaiaren inguruan, hain zuzen be. Horrelako ospakizunak herri askotan egiten ziran, baina tamalez galduz joan dira.

Markina, Arano eta Goizuetan, makilaz jotzen daberen zahagi-dantza egiten da. Gernikan, lurpean sartzen daberen oilarraren jokoa. Beste herri batzuetan zaldi ganetik egiten dabe antzar-jokoa. Beraz, hainbat herritan egiten dira antxina-antxinatik ospakizun bitxi eta bereziok, beharbada guretzako misterio hutsa diranak.

Eta amaitzeko, aitatu beharrekoak dira Lapurdi eta Behenafarroako aratoste koloretsuak eta Zuberoko Maskaradak, honeek, pertsonaia, dantza eta antzezleen aldetik garrantzitsu eta aberatsenak Euskal Herrian.

*Unai BEITIA - Artzakoa  
ITXAS-ALDEko dantzaria*



Lapurdikoko ihauteria

## KEPA DEUNAREN URDAILAK (euskal ipuina)

Behinola baten, beste askotan lez, Jesukristok bere ikaslea zan Kepa alboko herri batera bialdu ei eban berbaldiak egitera.

Hango herritarrek Kepa maite-maite eben, eta alkarren lehian, bakotzak bere etxera bazkaritan ekarri gura eben gure Kepa.

Guztien borondate ona bete ezinik, han-horhemenean, zizka-milizka, etxe guztietan zeozer jaten eban Kepak.

Etxe baten txarrikia ardao ugarik lagunduta. Bestean arrain zati ederra, sagardaoaz ondo nahastuta. Urliarenean esnea talo beroagaz. Berendiarenean saiheski ederra. Sandiarenean, osteria, arrautzak lukainka gozoagaz ipinita. Danetarik jan eta edan eban Kepak, eta ez gitxiegi, uste daikegunez.

Ilundean, urdaila bete-beterik, Jesukristoren ondora pozik eta alai bihurtu zan Kepa.

- Ta, Kepa, zelan ibili zara, bada?, itaundu eutson Jesukristok.

- Ederto, Jauna, hobeto ezin, erantzun eutson Kepak. Ai, nik jan dot gaur jatekoa! Jauna, zuk gizona egin zenduanean, gure lehenengo guraso Adaneri urdail bat bakarra ipini zeutson, baina gizonak ondo biziteko bi edo hiru urdail behar leukez.

Jesukristok erantzun eutson:



- Ai, Kepa, urdail bakarrak be, nahiko zereginik emongo deutso gizonari egunero bete behar badau.



Biharamonean, Jesukristok Kepa beste herri batera bialdu eban berbaldiak egitera.

Egun osoan ez eutson inortxuk be Kepari gedar egin bazkaritan joateko. Danak huts! Keparen gosea ez zan makala, bada! Egun osoan ezer jan eta ezer edan barik egon zan eta!!

Ilundean urdailak glu!, glu!, Kepa Jesukristoren ondora joan zan ilun eta larri. Jesusek irribarreka itandu eutson:



### Berbalapikoa

**urdail**= sabel.

**alkarren lehian**= norgehiagoka ibili, lehiaka.

**zizka-milizka**= danetarik apurtxuak jaten ibili.

**urlia**= honako hau, izena aitatu barik nonor dala adierazoteko.

**berendia**= harako ha, izena aitatu barik nonor dala adierazoteko.

**sandia**= horrako hori, izena aitatu barik nonor dala adierazoteko.

**lukainka**= txorizo.

**biharamonean**= hurrengo egunean.

**ilun**= arduratuta, arduratsu, artega.

**sabelkoi**= salobera, tripazale, sabelandi, jatun.

*Iniaki Martiartu  
1996ko irailean*

- Ta, Kepa, gaur zelan?

- Jauna, hau gosea! Gaur urdail bategaz be larregi!

- Ez zaitetz izan sabelkoia, Kepa, esan eutson Jesukristok. Jan biziteko egin behar da, baina ez bizi jateko!

Holan izan bazan,  
sartu daitela kalabazan.

Eta urten daijala

Sumusuko plazan.

(herri ipuina)

*Txakur gosetuak, ogiaz amets*

# datozanak

Euskal Herrian badago zer ikusirik datozen hileotan. Han-hor-hemen, perretxikoak lez, hurrengo honeexek aukeran izango dozuez:

- \* **ABERRI-EGUNA**, apirilaren 12an. Hainbat lekutan.
- \* **EUSKAL IDAZLEEN BILTZARRA**, apirilaren 13an. Saran.
- \* **NAFARROAREN EGUNA**, apirilaren 26an. Baigorri.
- \* **BUSTURIALDEKO DANTZARI TXIKIEN EGUNA**, apirilaren 26an. Busturian.
- \* **EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BARRIAREN JAIA**, apirilaren 28an. Iruñean.
- \* **EUSKAL HERRIKO DANTZARI EGUNA**, maiatzaren 3an. Sopuertan.
- \* **HERRI-URRATS**, maiatzaren 10ean. Senperen.
- \* **ARRAIN AZOKA-ERAKUSKETA**, maiatzaren 12tik 15era. Bermeon.
- \* **AEKANPADA**, maiatzaren 15etik 17ra. Urdiainen.
- \* **BIZKAIKO DANTZARI EGUNA**, maiatzaren 17an. Santurtzin.
- \* **UEMA EGUNA**, maiatzaren 24an, Arantzan.
- \* **IBILALDIA**, maiatzaren 31an. Mungian.
- \* **ARABA EUSKARAZ**, bagilaren 7an. Araia-Zalduondon.
- \* **SAN ANTONIO JAIA**, bagilaren 13an. Urkiolan.
- \* **ESKOLA TXIKIEN JAIA**, bagilaren 14an. Zizurkilen.
- \* **DONIENE JAIA**, bagilaren 24an. Bakion.
- \* **DERIOKO IKASTAROA**, bagilaren 29tik garagarrilaren 11ra. Derion.
- \* **UEU**, garagarrilaren 6tik 11ra. Baionan.
- \* **UEU**, garagarrilaren 20tik 31ra. Iruñean.
- \* **PASTORALA**, garagarrilaren 26an. Barkoxen.

# barregaiak

## BERBA EGIN BEHAR

Etxeko eraikintza beharrak amaitu ebazanean, soloko tresnak gordeteko aldetxe bat egiteko agindu eutson beharginari gure etxeko-andreak.




- Bai andrea, baina laguntzailea behar dot.
- Laguntzailea...? -andreak-. Baina behar hori egun baten egingo dozu.
- Bai, baina nogaz egingo dot berba?

## ADINA

- Zu, lagun, horren zuhur zaran hori! Zenbat urte emoten deustazuz?
- Berrogei edo...
- Egin-eginak. Zelan igarri dozu?
- Erdi kokoloa dan nire lehengusua hogeit urtekoa dalako.

# EZETZ JAKIN!

NONDIK NORA JOAN BEHAR DU  
ERROMES HONEK SANTUTEGIRA IRISTEKO?



7 EZBERDINTASUNAK



PERTSONAIA HAUETAKO BI  
ABENTURA-LIBURUAK IRAKURTZEN  
ARI DIRA; BESTE BI TESTULIBURUAK  
IRAKURTZEN ARI DIRA, ETA BAT BIBLIA  
IRAKURTZEN. ABENTURA-LIBURUAK  
IRAKURTZEN ARI DIRENAK ALTUERA  
BERDINEKOAK DIRA. TESTULIBURUAK  
IRAKURTZEN ARI DIRENAK ALTUERA  
EZBERDINEKOAK DIRA. ABENTURA-  
LIBURUAK IRAKURTZEN ARI DIRENAK  
SEXU BEREKOAK DIRA.  
TESTULIBURUAK IRAKURTZEN ARI  
DIRENAK SEXU BEREKOAK DIRA.

NOR ARI DA BIBLIA IRAKURTZEN?



### ATZERA BEGIRA

*Makina bat ur igaro da Zubiaurreko zubipetik argazki hau egin zanetik hona. Gitxi batzuk bizi izango zenuen une hau, eta beste askok gogoratu. Ziur zeuen etxeren baten badaukazuena argazki hau, bai zeuen aitarena dalako, bai zeuen osabea agertuten dalako, edo baita bertan zeuen anaiea edo nebea dagoalako be. Eta ez daukazuenok edota galdutzat emoten zenuenok hemen daukazu aukerea zeuen lagun eta senideen kontura barre batzuk egiteko.*

*ETXE-PINTOn, 1953. urteko bagila-garagarrilan, kurtso amaieran. Gotik behera eta ezkerretik eskoira honeexek doguz:*

*GOIKO LERROAN: Jose Antonio Bóveda - Luis Aio - Andres Olazar - Inazio Abio - Luis Mari Ormaza - Juan Ormaza - Bixente Garaikoetxea - Esteban Etxebarria (†) - Hilario Lasa - Patxi Imatz - Iñaki Muruaga - José Manuel Bustamante - Jabier Muruaga.*

*2. LERROAN: Asentzio San Pelaio - Juan Vázquez - Jose Uriarte - Martin Aio - Jabier Elorriaga - Bernardo Abio - Jose Ormaza - Migel Bilbao - Imanol Ormaetxea - Jose Garai (†) - Jose Antonio Llaguno - Jose Mari Iturain - Segundo Legarreta - Juan Legarreta - Jesus Ibinaga (†) - Anaia Hilario.*

*3. LERROAN: Anaia Heraclio - Karlos Uriarte - Esteban Garai - Juan Abio - Nikolas Aginaga (†) - Juan Ormaza - Jesus Aginaga - Agustin Alzaga - Jesus Zorroza - Pedro Barturen - Jose Antonio Goikoetxea - Jokin Imatz - Jesus Antonio Olaskoaga - Pedro Abio - Karlos Uriarte.*

*4. LERROAN: Jose Sasiain - Jesus Erauzkin - Jose Erauzkin - Angel Uriarte - Jabier Ordorika - Juan Antonio Ordorika (†) - Imanol Uriarte - Santi Garai - Jabier Uriarte - Santi Aio - Jon Larrazabal - Pedro Meñaka - Juan Antonio Uriarte - Franzisko Markaida.*

*BEHEKO LERROAN: Pablo González - Joseba Imatz (†) - Migel Uriarte - Martin Goitia - Bernardo Escalante - Julian Ormaza - Jabier Ormaza - Iñaki Abio - Joseba Iturriotz, Josu Iturriotz - Jose Ramon Zorroza - Jesus Garai - Felipe Alzaga.*